



BARREN
TOKIKOM

Arrainentzako eskailerak



ETXEBIZITZA ETA GARAJEEN HURRENGO ERAIKUNTZA **UBITARTEN**

943 31 65 86

INFORMAZIO
GEHIAGO

www.sukia.com

San Roke kalea 15 - 20870 Elgoibar
Koordenadak: 43.212760, -2.416292

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

**grupo
LAZKANO**

Enpresaren
k hartzea

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

2017an jaiotako hurren matrikulazio-aldia zabalik irailaren 18tik 29ra,
azarotik otsailera bitartean hasiko diren haurrentzat.



elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus
943 744441



Ordutegi zabala: 7:30-19:30 / Jai-zubietan eta oporretan irekita



2018 Gida komertziala



BARREN

Elgoibarko eta Mendaroko gida komertziala prestatzen dihardugu.
Zure enpresaren datuak gidan DOAN agertzeko aukera daukazu!

Datu-basea osatzeko zure laguntza behar dugulako, eskeruko genizuke gurekin haremanetan jarzea:
gida@elgoibarkoizara.eus / gidabarren@gmail.com - 943 744 112





NORA HADI



“Ez ginen ezertan adituak, baina bai zerbait esateko zeukaten bi ahots gazte eta indartsu”

Atzo baliuz bezala akordatzen naiz hemen idazteko gonbita egin zenidan egunaz, Garazi. Eta baita gure nondik norakoak joratzeko hartu genuen lehen kafeaz ere. Zuloxo batetik ikusiko bagintuzte, ziur gure ezkontza antolatzen ari ginela pentsatuko zukeela norbaitek. Buruan bueltaka genituen ideiez jardun genuen luze, eta elgoibartarrei transmititu nahi genizkien mezuez ere eztabaidatu genuen. Ez ginen ezertan adituak berez, baina bai zerbait esateko zeukaten bi ahots gazte eta indartsu.

Elkarrekin egin nahi genuen, bion gustuko idazkera erabiliz, bion gustuko gaiak tratatuz, eroso sentituko ginen eremu bat sortu nahian. Egia esan, aitzakia polita izan dugu elkarri deitu eta batak bestearen berri izateko.

Betidanik erreparatu izan diot *Zozoak beleari* atalari BARREN aldizkaria hartzean. Zutabe batzuk behin eta berriro irakurri izan ditut, eta onartzen dut, beste batzuetan negritan dagoen titularra besterik ez dudala irakurri, baina beti eskaintzen dizkiot minutu batzuk. Herrian denek dakite nortzuk diren atal horretako idazleak. Zenbat aldiz esan ote dugu lagun artean "BARRENEN idazten duena" norbaitek pertsona hori ezagutzen ez duela diotenean. Ondo dakit biontzat ohore bat izan zela atal honetan parte hartzeko aukera izatea. BARRENEko antolatzaileek jakingo dute, eta orain hau irakurriko duenak ere bai, gure planteamentutik urrutiti ibili garela. Bi hilabetetik behin idatziko gurela esan, eta guri bi hilabete hauek bi aste iruditut! "Hurrengoan astebate lehenago hasiko gara", esaten genion elkarri astearte iluntzeetan BARRENERa gure testuak bidali bezain pronto. Baina ez horixe! Hurrengoan ere azken uneko presak jota ibiltzen ginen: zenbat tardatu izan dugu gaia aukeratzeko, batak besteari testua erakusten, luzeegiak zirelako moztzeko, motzegiak zirela eta luzatzen...

Kontuak kontu, plazer handi bat izan da erronka honetan parte hartzea eta nola ez zurekin konpartitzea, Garazi. Baina gure kasuan *Zozoak beleari ipurbeltz* atal honi izena aldatuko nioke nik; A ze pareta, karakola eta bareta! Nahi duzun arte!



GARAZI AYESTA



“Hilabete hauetan BARRENEko lehen orrialdean joan dira burutazio, zalantza eta minak”

Ai, Nora, jakingo bagenu zenbat ideia, esaldi eta hitz. Zenbat whatsapp mezu azken orduan batak besteari burutazioak kontsultatzen... Polita izan da esperientzia, zalantzarik gabe. Ondo esan duzu; karakolaren eta barearen antz handiagoko daukagula guk biok, zozoarena eta belearena baino. A zer bi, despistatuak eta desastre hutsaK. Baina, aizu, aspaldiko partez elkarren berri edukitzeko eta buruari buelta pare bat emateko balio izan digu ariketa honek. Gutxienez bi kafe eta mendi buelta bat, txakur eta guzti. Eta hori egin badugu behintzat, bejondeigula!

Ez dakit asmatu ote dugun gaiak planteatzeko, esplikazioak ematen edo aldarrikapenak mahaiaren gainean jartzen. Ez dakit jakin ote dugun atal honi zein forma eta zein itxura eman. Saiatu, saiatu gara behintzat. Kurioso izan da gainera, nik barrera irekitzen baitut idazten jartzen naizen aldiro: nire kezak, zalantzak, kontraesanak; argiak eta ilunak. Denak plasmatzen ditut paperean eta nire bertsiorik gordinena azaleratzen dut. Normalean, nire buruarentzat edo ingurukoentzat idazten dut. Hilabete luze hauetan, aldiz, BARRENEko lehen orrialdean joan dira burutazio, zalantza eta minak: hantxe, herriak irakur dituzan. Eta ze polita den batzuetan paperaren babesean egi biribilak idaztea, irakurtzea, partekatzea, entzutea.

Agian kokoteraino amaitu dute gure BARRENEko lagunek bion testuak luzatu, laburtu edo zuzentzeaz. Akaso gu bion guraso eta aitona amonek soilik irakurri dituzte guk idatzitakoak. Beharbada, hala izan da. Baina seguru nago baten baino gehiagoren komuneko bisitak arindu ditugula, Nora. Mugikorra alde batera utzi eta ostiral-iruntzeko-komuneko-hustualdia gu irakurtzen egin dutela askok. Bai, badakit, ez da nire agurra amaitzeko oso modu dotorea eta erromantikoa. Baina, noiztik izan gara gu, Nora, dotoreak eta erromantikoak? Azken hau gustukoa izan duzelakoan, besarkada bat. Eta zuri hamaika mila, Nora; plazer bat izan da!

HARRI & IRRI

Botokutxa star



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskoñol Lezioaren Espangurua

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arribabala, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

2017ko San Antolin jaiak pasatu dira eta eskerrak emateko unea iritsi da guretzat. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu urtero auzoko jai hauek gauzatzeko laguntzen diguten guztiei: Elgoibarko Udala, brigadako langileak, Kultura Sailako teknikariak, Usatorre taberna eta Elustondo eta Direda edari banatzaileak.

Bestalde, zorionak eman nahi dizkiegu errifen zozketan saritutakoei. Paula Heras (Kanariar Uharteetara astebeteko bidaia eta egonaldia), eta Rosa Mari Iriondo (janariz eta edariz beteriko karretila). Zorionak, eta gozatu sariaz.

Bukatzeko, etorri eta gurekin batera jaietaz gozatu zenuen horri, mila esker eta hurrengo urtera arte.

Kaxeta, San Antolin auzoko elkarteak

► KATALUNIAREKIN BAT

EHBilduk Katalunian bizi duten une historikoarekin bat egin nahi du eta erabakitzeke eskubidea babestu. Horregatik, urriaren 1eko erreferendumaren azken txanpan gaudela, EHBilduk hainbat ekintza antolatuko ditu:

- Irailak 22, ostirala, 20:00, Kalegoen plaza: Elkarretaratzea, *Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat*

- Irailak 28, osteguna, 19:30: Udal plenoan mozioa aurkeztuko du EHBilduk Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferenduma babesteko. Herritarrei dei egiten zaie bertara esteladak eramateko.

Deialdi berezia: herritarrei etxeetako balkoietan esteladak jartzeko eta antolatzen diren ekitaldietara eramateko.

EHBildu

► GURE BABESA KATALUNIARI

Espainiako Guardia Zibila Katalunian egiten ari den operazioaren larritasuna ikusirik, eta urriaren 1eko erreferenduma galarazteko Espainiako Gobernua bultzatzen ari den neurri antidemokratikoei erantzunez, Gure Esku Dagok ondorengo adierazi du:

1. Oso kezkatuta gaude Espainiako Estatua Katalunian izaten ari den esku-hartzearekin eta irmoki salatzen ditugu azken gertakariak/erasoak: Generalitateko hamalau kargudunen atxiloketak, miaketak

eta etengabeko jazarpen polizial eta judicialak. De facto, salbuespen egoera ezartzen ari da Katalunian, eskubide zibil eta politikoak masiboki urratuz. Gertatzen ari dena asaldagarria eta onartezina dela uste dugu. Nahikoa dela esateko ordua da.

2. Berresten dugu urriaren 1eko erreferenduma Kataluniako herritarren gehien-goaren nahiri erantzuteko tresna demokratikoa dela, eta beraz, posible izan behar duela. Demokraziaren eta herritarren eskubide zibilen alde katalanak erakusten ari diren ausardia goraiatzeko dugu. Gure babesa eta laguntza izango dute, orain artean bezala, urriaren 1a bitartean, eta baita ondoren ere.

3. Larunbatean, demokrazia eta erabakitzeke eskubidearen aldeko aldarrien defentsan milaka lagun kaleratu ginen Bilbon. Egoeraren larritasuna ikusirik, Euskal Herriak erantzuten jarraitzea beharrezkotzat jotzen du Gure Esku Dagok, eta herritarrei eskatzen diegu mobilizatzeko beharraz jabetu daitezen eta adi egon daitezen datozen egunetako deialdiei

Gure Esku Dago

2018ko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

▲ GAIA: ELGOIBARKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA.

Komertzioa eta Ostalaritza, jarduera gisara, Elgoibarren garatzen diren era ezberdinak, guneak, kaleak, azokak, plazak, tabernak, dendak, erakusleihoak, salerosketan parte hartzen duen jendea, horretan aritzen diren pertsonak...

▲ **ARGAZKIEN FORMATUA:** Argazkiak etzanak/ horizontalak izan beharko dira, koloretakoak nahiz zuri-beltzekoak.

▲ **LAN KOPURUA:** Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

▲ **LANAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA:** Argazkiak bidaltzeko bi aukera daude:

a) Argazkiak CD batean, itxitako gutun-azalean, eta honako izenburuarekin aurkeztuko dira:

"Elgoibarko egutegia 2018" Argazki Lehiaketa. Barruan egilearen datuak jarriko dira (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, helbide elektronikoa, eta argazkiaren izenburua, lekua eta data). Helbidea: Kultur Etxea (Euskara Saila), Kalebarren plaza 3, 20870 Elgoibar.

b) Emailez, euskara@elgoibar.eus helbidera bidalita. Hemen ere aurreko datu guztiak azaldu beharko dira.

Parte-hartzaileak konfirmazio mezu bat jasoko du lehiaketan onartua dagoela jakinarazteko.

▲ **Argazkiak aurkezteko epea: 2017ko urriaren 11ra arte.**



Aita Agirre eraikina eraberritzeko akordioa sinatu dute Elgoibarko Udalak eta Foru Aldundiak

Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Denis Itxaso Gipuzkoako Kultura diputatuak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, Aita Agirre eraikina berritzeko. Aldundiak 510.000 euro jarriko ditu eraikina finkatu, berri eta zaharberritzeko obrak egiteko. Ondo bidean, obrak 2019rako bukatuko dituzte.

Ane Beitia alkateak adierazi duenez, instituzio publiko desberdinen arteko akordio berri honi esker, "urrats garrantzitsu bat" eman dute, Gobernu taldearentzat "estrategikoa" den proiektu hau errealitate bihurtzeko. Honela azaldu du Beitia: "Aita Agirreraren eraberritzea, legealdi osoan zehar aurrera eramango dugun ekimen garrantzitsuenetakoa da. Kulturaren aldeko apustua egin dugu, apustu sendoa gainera, Aita Agirre kultur eremu erreferente bihurtzeko helburuarekin. Herrian zein eskualdean garrantzitsua izango den kultur gunea izango da zalantzarik gabe".

Denis Itxaso Kulturako diputatuak proiektuaren garrantzia azpimarratu du eta, halaber, eraikinari izaera "balioa-



niztuna, malgua, modernoa eta funtzionala" eman nahi zaiola adierazi du.

Erabilera

Partaidetza prozesu baten bidez erabaki du Udalak Aita Agirre eraikinaren erabilera: Udal Bandak eta txarangak erabiliko dute beheko solairua, akustika ona duen gunea delako, eta plaza berean kokatuko da musikarekin zerikusia duen guztia, kontserbatorioa ere alboko eraikinean dagoelako. Bi areto balioaniztun egokituko dituzte erakusketak jar-

ritzeko eta kultura ekintza ezberdinak antolatzeko, beheko solairuan eraikiko den Kafe Antzokiarekin lotuta. Lehenengo solairuan hitzaldi areto bat jarriko dute, eta bertatik eraikinaren terraza berrira eta Euskara, Kultura eta Gazteriako udal sail-etara sartu ahal izango da. Bigarren solairuan liburutegi moderno bat jarriko dute. Estalkipean, berriz, udal euskaltegia eta Elgoibarko Izarra elkarte, gazteen aisialdirako jarduerak eta Gazteleku eta Ludotekako zerbitzuak kudeatzen dituen elkarteak kokatuko dira.

Elgoibarko mendizale bat erreskatatu du Guardia Zibilak Leongo Bustil mendian



43 urteko elgoibartar bat 30 metroko altueratik erori zen zapatuan Leongo Bustil mendiaren gailurrean, eta Guardia Zibilaren mendiko taldeak erreskatatu zuen helikopteroz. Gorputz osoan jaso zituen kolpeak; handiena, baina, bizkarrean. Hala, zauritua helikopteroan atera behar izan zuten menditik. Lur hartzeko arazo handiak eduki zituen helikopteroak haize indartsua zebilelako. Riaño herriraino eraman zuten helikopteroz zauritua, eta handik Leon hiriburuko ospitalera ambulanziaz.

Leongo Maraña herrian dago Bustil mendia. Europako Mendiak parke naturalean eta 2.031 metroko altuera dauka.

Pinparblue taldeak zazpigarren egin du Espainiako WRO robotikako olinpiadan

Naroa Rodriguez, Jone Navarro eta Claudia Arrillaga elgoibartarrek osatzen dute Pinparblue taldea zazpigarren postuan sailkatu da Espainiako World Robot Olympiad txapelketan. Robotika eta oro har bokazio teknikoak gaztetxoek artean sustatzeko hainbat ekimen egin dituzte azkenaldian Elgoibarren, uztailan egin zuten robotika eta bideojoko tailerra izan zen azkena, adibidez. Eta hasi dira euren robotak eraiki eta programatzeko gaitasuna daukaten gazteak nabarmentzen. Iaz, Euskadiko Robotika txapelketa irabazi zuten Naroa Rodriguezek eta Claudia Arrillagak, eta aurten, Jone Navarro euren taldera batu eta gero, World Robot Olympiad (WRO) Gipuzkoa lehiaketan parte hartu zuten Donostian. Euren robotak irabazi zuten, Elementary kategorian. Elgoibarko beste bi talde ere lehiatu ziren txapelketa horretan. Elgoibarko hiru talde horiek IMHren instalazioetan prestatu dituzte robotikako olinpiadak, Dolplay enpresako arduradunen gidaritzapean.



600 inkesta egingo ditu Elgoibarko Udalak mugikortasun plana hobetzeko

Mugikortasun plana hobetzeko 600 inkesta egingo ditu Udalak, Colin Buchanan Consultores, S.A. enpresaren laguntzaz. 400 inkesta telefonoz egingo dituzte, beste 100 katean, gidariei eta garraio publikoko erabiltzaileei, eta azkenik beste 100 oinezko eta txirrindulariei. Landa-azterketa iraila eta urria bitartean egingo dute eta besteak beste, aparkalekuak, garraio publikoak, oinezkoen mugikortasuna eta txirrindularien mugikortasuna aztertuko dituzte.

Kataluniari elkertasuna adierazi diote



EHBilduk deituta, elkarretaratzeak egin zituzten atzo Elgoibarren eta Mendaron, Katalunian abiatutako prozesuari babesa agertzeko eta azkeneko egunetan Herrialde Katalanetan egin dituzten polizia operazioak salatzen.

Bertso eskolan izena emateko epea zabalik dago

Bertso eskola martxan jartzeko saiakera egin nahi du Elgoibarko Izarrak, Udalaren babesarekin. Bertsolaritza ezagutzeko, ahozko-tasuna eta komunikazioa lantzeko eta hizkuntzarekin jolasean ikasteko aukera eskaintzen du bertso-eskolak. 5 urtetik gorakoek eman dezakete izena. Izenemate hau behin-behinekoa izango da. Taldea osatuz gero, izena eman dutenekin urriaren 6an jarriko gara harremanetan ordutegia eta egutegia finantzatzeko. Taldea sortzeko gutxieneko kopurua 8 lagunekoa izango da. Informazio gehiago 943 741 626 telefonoan.

Errosario kalekoen afaria urriaren 6an izango da

Errosario kaleko Ama Birjinaren Egunaren harira, afaria egingo dute Errosario kalekoek urriaren 6an. Gabi jatekian izango da, 21:00etan. Menuak 25 euro balioko ditu, kafea, edariak eta txanpaina barne. Interesatuak Gabi jatekian bertan eman behar dute izena urriaren 4rako.

San Antolin jaietako errifak baditu irabazleak

San Antolin jaietako errifaren zozketa egin dute. 2.299 zenbakiarekin Paula Herasi egokitu zaio Kanariar Uharteetarako bidaiara, eta 4.308 zenbakiarekin, berriz, Rosa Iriondok jaso du janariz eta edariz beteriko karretila.



“Dirudiena baino bizitza gehiago dago Deba ibaian”

► JAVIER SANZ

MENDI INGENIARITZAN DOKTOREA

Orain dela urte batzuk ezinezkoa zirudiena egi bihurtzeko bidean da. Depuradorei esker, Deba ibaiko uraren kalitatea asko hobetu da azken urteotan, eta horri esker, ibaiko fauna eta flora berreskuratzen ari da. Arrainentzako, baina, oztopoak ditu Deba ibaiak, hainbat puntutan ur jausi eta presak dituelako. Europako lege batek eskatzen du oztopo horiek kentzeko eta arrainak ibaian gora joan ahal izateko egokitzapenak egiteko. Altzolako presan lanak hasita daude, eta Maltzagara bidean dauden bi presatako lanak oraintxe amaitu ditu Amaro Eraikuntzak enpresak. Javier Sanz elgoibartarrak idatzi du obra horien proiektua eta berak eman dizkigu azalpenak. Javier Sanz Mendi ingeniariaren doktorea da, eta eskolak ematen ditu Palentziako Ingeniaritza Eskolan.

- AINHOA ANDONEGI -



◆ Nola sortu zitzaizun Deba ibaiko presak egokitzeko proiektua idazteko aukera?

Palentzian bizi arren, ni elgoibartarra naiz, Santa Ana kalekoa, eta presa horiek ume garaitik ezagutzen ditut, lagunak ingurune horretan jolasten ginelako, harriak errekarat botatzen. Eta gero, kasualitatez, ibai gaietan egin nuen doktoretza. Isolatuta dauden ibaiko guneen konektibitate aukerak aztertu nituen. Doktoratu ostean, unibertsitatean hasi nintzen eskolak ematen eta lantalde bat sortu nuen, arrainek ibaietan dituzten oztopoak atzeman eta horiek gainditzeko aukerak aztertzeko. Azken urteetan hainbat proiektu idatzi ditugu gai honi buruz, ibai eta presa asko aztertu ditugu Espainian zehar, eta horietako baten ezagutu nuen Elgoibarko bi presen jabeetako bat. Egia esan, umetatik neuzkan buruan presa horietako oztopoak gainditzeko moduak.

◆ Zertan datza bi presa horietan egin den obra?

Presa batek eragina du ibaiaren berezko portaeran, besteak beste, arrainen migrazio mugimenduak oztopatzen ditu. Arrain batzuk itsasoan eta ibaian bizi dira, aingira edo izokina, adibidez; eta beste arrain batzuk bizi osoa egiten dute ibaian, barboak edo loinak esaterako. Presen eraginez, arrainek zailtasunak izaten dituzte ugalketarako leku egokietara iristeko. Hori dela eta, irtenbideak aurkitu behar dira, ur-ekosistemetan eta egungo legediarekin bateragarriak direnak. Gaur gaurkoz, arrainentzako eskalak dira irtenbiderik egokiena. Urez betetako eskilara moduko batzuk dira, bainuontzi handi batzuk modukoak, eta arrainak gai dira jauzi eginez eskailera horiek gainditzeko.

◆ Zein ezaugarri ditu eraiki berri den eskala horrek?

Presak gutxi gorabehera lau metroko desnibela dauka, eta hori arrainentzat gehiegizkoa da. Legediaren arabera, bainuontzien gehieneko desnibela 0,25 metrokoa izan behar da, eta guk

0,20 metrokoa egin dugu. Modu horretan hain igerilari onak ez diren arrainak ere igo ahal izango dira errekan gora. Diseinu berritzaile batekin eraiki dira eskalak: bakarrik garbitzeko sistema bat dauka, arrain txiki zein handientzako egokia, eta aingirak ere igo daitezke bertatik arrastaka. Aingirik ez dute jauzirik egiten, eta honelako eskalarik gabe ere ur jausiak gainditzeko gai dira. Hala ere, aingira guztiek ez dute lortzen presako ur jausia gainditzea. Altzolako presa, adibidez, aingiren %10ek gainditzen dute soilik, eta eskala hauen helburua da arrainen populazio handi baten migrazio mugimenduak bermatzea.

◆ Zein arrain espezie aurki daitezke Deba ibaian?

Sinestezina dirudien arren, Deba ibaiak bizitza dauka, dirudiena baino bizitza handiagoa. Amuarrain asko dago, Sallobente errekan batez ere, eta aingira ere oraindik badago, lehen baino gutxiago, baina ikusten da. Loinak ere badaude, eskailuak... Eta espero dut ni jubilatzerako izokina ere ikustea Deba ibaian. Izokina Bidasoan eta Orian berreskuratuta dute, eta nik uste dut hemen ere lortuko dugula. Baina horretarako presa guztiak egokitu behar dira. Elgoibarren bi egokitu dira orain, eta Altzolan ere lanak hasita daude, baina bidegorrian, beste presa bat dago, hileritik gertuen gelditzen dena, eta hori oraindik egin gabe dago. Nik uste dut egingo dutela, baina ez dakit noiz.

◆ Ibaian behera goazela beste presa bat baldin badago, ez al dira alferrikakoak izango egin berri diren bi presa horietako obrak?

Hori bera pentsatzen dugu guztiok, baina presak jabeago pribatukoak dira eta jabe bakoitzak erabakitzen du obra noiz egin. Orain egokitu diren presak jabe berberenak dira, baina bidegorrian dagoen hirugarren presa hau eta Altzolako beste uga zaba batzuen da. Lau presa hauek egokituta Sorluzeraino

iritsiko lirateke arrainak, baina handik gora traba gehiago dituzte. Presa asko kendu dira, eta beste asko egokitu, baina oraindik traba asko daude Deba ibaian. Oker ez banabil, garai batean 230 oztopo zeuden 70 kilometroan. Horrek esan nahi du kilometro bakoitzeko hiru oztopo zeudela gutxienez.

◆ Baina Europako lege batek dio arrainen mugimenduak bermatzeko bideak jarri behar direla, ezta?

Bai, baina araudien kontu hau ez dago oso garbi. Espainian badago 1942ko lege bat derrigortzen duena izokin guneetan horrelako estruktura egitea, baina hori gehiago bete da 40ko hamarkadan izokinak zeuden guneetan; ez da Deba ibaiko kasua izan. 2000. urtean Europako Batasunak atera zuen arau moduko bat zehaztuz presa guztiak arraintzako pasabideekin egokitu behar zirela, eta urtebete geroago ingurune bakoitzeko ur agintziak arduratu dira arau hori betearazteaz, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko kasuan, Ura Euskal Agentzia. Baina oraindik lan handia dago egiteko.

◆ Arrainak Deba ibaiaren sorbururaino iristea da helburua?

Izokinaren kasuan, adibidez, ez du sakonera gehiegirik behar ugaltzeko. Ur garbi ertaintan ugaltzen da izokina, beraz, Maltzaga pasata, Soraluze inguruan aurki dezake izokinak ugaltzeko lekuren bat, baina zenbat eta gorago, hobeto. Ugalketa prozesuaren ostean, izokin helduen %98 hil egiten dira, eta gazteak itsasora itzultzen dira. Izokinak joera dauka jaiotzen lekura itzultzeko ugaltzera. Hortaz, izokinarentzat garrantzitsua litzateke Deba ibaiko goialderaino iritsi ahal izatea. Aingirak justu aldeantiz jokatzeko du: ibaian bizi da gehienbat eta ugaltzera itsasora joaten da. Aingira arazorik gabe bizi daiteke Elgoibar eta Deba artean. Azken batean arrain bakoitzak bere biologia propioa dauka, baina guztiak behar dute ibaian gora eta behera askatasunez mugitzea.



◆ Zein da une honetan Deba ibaiaren egoera?

Gogoan daukat umetan eskolara joaten ginenean, ibaian koloretako ura ikusten genuela ia egunero. Oso kutsatuta zegoen orduan, eta gaur egun uraren kalitatea ona dela esan dezakegu. Ego ibai oraindik kutsatuta dator, bereziki, Ermua eta Mallabi aldean ez dagoelako depurazio sistemarik. Baina, oro har, esan daiteke gaur egun Deba ibaiko uraren kalitatea ona dela eta bizi handia dagoela. Garai batean, egun bakoitzean kolore baten ura ikusten genuen ibaian, eta 35 urtetik gora ditugunontzako sinestezina da hau!



Xabier Iribar URA EUSKAL AGENTZIAKO TEKNIKARIA

Xabier Iribar Ura Euskal Agentziako teknikariak esan du Europako legedia bete dutela obra hau eginda. Izan ere, Europako Batasunak lege bat atera zuen, ibaietako presak arraintzako pasabideak eduki behar zituztela esaten zuena, eta Ura Euskal Agentziak ere badu hori betearazteko Espainiako lege bat. Horrez gain, Espainiako Plan Hidrologikoan ere jasota dago ibaietako oztopoak kentzeko beharra. Elgoibarren lau presa daude. Hiru Maltzagarako bidegorrian daude, bata bestearen jarraian: Laupago, Aitzetarte eta Barrenaberri; eta laugarrena Altzolan dago. Laupago eta Aitzetarteko obrak amaitu berri dituzte, eta gainerakoak ere egingo direla azaldu dute Ura agentzietatik: "Helburua da presa horiek egokitzea arrainak ibaian gora eta behera mugitu ahal izateko". Jakin badakite eskala horiek ere arraintzat oztopo direla, askoz hobeto mugitzen direla ibai libreetan, baina presa horiek funtzionamenduan dauden bitartean aukerarik egokiena dela esan du teknikariak.

Deba ibaia garai batean oso kutsatuta zegoen, eta orduan kutsadura bera zen gairik kezagarriena, arraikin apenas zegoelako Deba ibaian. Baina Debagoienean eta Debabarrenean egin dituzten depuradorei esker ura asko garbitu da, eta Deba ibaia arrainen bizitoki da gaur egun. Hori jakinda, Xabier Iribarrek argi esan du orain ezin dutela beste alde batera begiratu, eta arrainen migrazio mugimenduen gaia aintzat hartu behar dela. "Aingira, barboa, amuarrainak, loina edota eskailuak badaude, eta izokina ere laster berreskuratuko dugu". Obrak bukatu dira eta orain obra horiei segimendua egin behar zaie, benetan funtzionatzen duten egiaztatzeko. Ura agentzietatik esan dute Foru Aldundia baduela horretarako departamentu espezializatua teknikari adituekin, eta sistema bereziak dituztela arrainei jarraipenak egiteko.

7,24 nota eman diete irakurleek BARREN astekariari eta 7,56 'barren.eus' atariari

Herritarrekin eta herritarrentzat egindako proiektua da BARREN, eta horregatik oso garrantzitsua da guretzat herritarrek BARRENI buruz duten iritzia jasotzea. Horretarako inkesta bat prestatu genuen, eta 122 lagunek erantzun zuten galdetegia, 98 elgoibartarrek, 17 mendaroorrek eta gainerako erantzunak bi herri horietatik kanpoko irakurleek eman zituzten. Eskerrik asko guztioi galdetegia erantzuteko hartu duzuen tarteagatik, BARREN herritarren gustura egokitu ahal izateko ezinbestekoa da-eta guztion iritzia ezagutzea. Erantzun horiek aztertu eta emaitza esanguratsuenak jaso ditugu bi orriotan.


122 lagunek erantzun dute BARRENI buruzko inkesta. Galdetegia erantzun dutenen jatorriari dagokionez, %81,1 elgoibartarrak izan dira, eta %14,8 mendaroorak; eta adinari dagokionean 36-50 urte bitartekoak izan dira erantzun dutenen gehiengoa (%41). Sexuari dagokionez, berriz, %65,6 emakumezkoak izan dira. Irakurleek emandako noten batezbestekoa eginda 7,24 nota atera du BARREN astekariak. 25 urte beteiko ditu astekariak abenduaren 24an, eta emaitza horri erreparatuta esan dezakegu herritarrek estimu handitan dutela aldikaria. Irakurleen %73,8k uste dute gainera 25 urte hauetan aldikariak hobera egin duela, eta %26,2k adierazi dute gehiago gustatzen zitzaiela hasierako urteetako BARREN. Proiektua norena

den galdetzerakoan, %63,1ek badaki BARREN Komunikazio proiektua Elgoibarko Izarrarena dela, baina gainerakoek ez dakite norena den.


BARREN egiten dugunon kezka nagusienetakoa banaketa izatea da, izan ere, irakurleengana iristen ez bagara alferrik ari gara. Galdetegiaren arabera, irakurleen %63k astero jasotzen dute BARREN postontzian, eta %27,9k esan dute noizean behin huts egiten duela, baina normalean jasotzen dutela.

Era berean, irakurleek BARRENI eskaintzen dioten denborari dagokionean, %54k esan dute atalrik gehientsuenak irakurtzen dituztela, eta %36,9k 15 bat minutu eskaintzen diote astero astekariari.


Hedabide plurala ala lerratua iruditzen zaizu BARREN?




Zer iruditzen zaizu aldizkariko publizitatea?



Nolakoa da astekariaren banaketa?



Zenbat denbora ematen duzu aldizkaria irakurtzen?



Erretratu zaharra eta Semaforoa dira irakurleen atalik gustukoena

Aldizkariak atal asko eta diferenteak izan ditu 25 urteotan, baina badira bi atal 25 urteotan mantendu izan direnak, nahiz eta astero-astero ez kaleratu: Erretratu zaharra eta semaforoa. Eta hain justu ere, bi atal horiek izan dira herritarren gustukoena. Erretratu zaharrak 7,11 nota jaso du eta Semaforoak 7,02koa. Beste muturrean, hau da, jendeari gutxien gustatzen zaizkion atalen artean Zozoak Beleari eta Hitz eta Klik daude. Publizitatearen kasuan %41,8k esan dute ez diotela kasurik egiten, eta %24,6k esan dute ez zaiela gustatzen, baina ulertzen dutela aldizkaria finantzatzeko beharrezkoa dela.

Edukien nolaketan buruz galdetzerakoan 6,62 nota jaso du gaurkotan, eta 6,01 nota eman diete gaien aniztasunari. Argazkiek, berriz, 6,68 nota jaso dute.

Edukiei lotuta, bestalde, gaien tratamenduak berebiziko garrantzia dauka kazetaritzan. Erabateko objektibotasuna ez dela existitzen diote adituek, baina objektibotasun horretara ahalik eta gehien hurbiltzeko ahalegina egin behar izaten dute medioek. Alde horretatik, irakurleen %75,1ek uste dute BARREN aldizkari plurala dela eta gaiak objektibotasunez tratatzen direla. %24,6k aldiz esan dute lerratua dela. Lerratua dela erantzun dutenen artean, 15 lagunek esan dute ezker aldera lerratuta dagoela, bik uste dute Udalaren aldeko jarrera duela aldizkariak; eta beste sei lagunek ez dute argi zehazten nora lerratzen den astekaria.


Galdetegia erantzun dutenen %96k ezagutzen dute 'barren.eus' atari digitala

BARREN Komunikazio proiektuak 2003an jarri zuen martxan *elgoibarren.net* atari digitala, gaur egun *barren.eus* dena, eta gure galdetegia erantzun dutenen %96k ezagutzen dute. Ezagutzeaz gain, irakurleen %42,6k esan dute sarri sartzen direla webgunera albisteak irakurtzera, eta %43,4k esan dute noizean behin sartzen direla. Erabilera eta estetikari dagokionez, %82,3k uste dute webgune argia eta erabiltzeko erraza dela. Azkenaldian gero eta gehiago dira webguneetako informazioa sakelako telefonoen bidez jasotzen dutenak, eta guk ere horretarako egokitu genuen gure ataria. Hortaz, erabiltzaileek %62,8k esan dute sakelako telefonoan ere ondo ikusten dela webgunea. Hala ere, argazkiak eta bideoak sakelako telefonoan hobeto ikusteko beharra ere aipatu dute hainbat erabiltzailek. Sare sozialen erabilerak ere nabarmen egin du gora azkenaldian, eta jende askok euskarri horien bidez jasotzen dituzte berriak. Gure kasuan, erabiltzaileen %42k ohitura dute noizean behin sartzeko albiste berriren bat dagoen edo ez ikustera, eta erabiltzaileen %42,9k Facebooken bidez jasotzen dituzte *barren.eus* atarian publikatzen diren albisteak.

Publizitateari dagokionez, %64ri ez zaio webguneko publizitatea gustatzen, eta %19,8k esan dute noizean behin klik egiten dutela publizitatean.


Webguneko atalei dagokienean, BARREN PDFan atalak jaso du notarik altuena (7,4), argazki bildumak 7,10; albisteak 6,96; bideoak 6,91, Aho-tsak.com-ek 6,5 eta Komunitateak 6,41.

Nondik jasotzen duzu 'Barren.eus'-en informazioa?




- Noizean behin sartzen naiz zerbait berria ote dagoen ikusteko
- Harpidetuta nago eta posta elektronikoz jasotzen dut informazioa
- Facebook-etik
- Twitter-etik

Sakelako telefonotik sartzen al zara webgunera?



- Bai, mugikorrean ere ondo ikusten da
- Ez, mugikorrean ez da ondo ikusten

Nolakoa da 'Barren.eus' atariaren erabilera?



- Ez da batere argia, ez dut ezer aurkitzen
- Webgunea argia da, erabiltzeko erraza
- Motela da, asko tardatzen du kargatzen
- Dinamikoa eta azkarra da



“Kultura da biderik egokiena herri honen historia mingarria tratatzeko”

► **JON MAIA** BERTSOLARI, IDAZLE ETA GIDOILARIA

Urruneko diruten bi herri eta kultura batzeko ahalegina da *Ele!! Lorca-Lauaxeta* lana, Elgoibar 1936 taldeak, Udalaren laguntzarekin, gaur Elgoibarrera ekarriko duena (Herriko Antzokian, 22:00etan). 1936an, frankistek hil zuten Federico Garcia Lorca poeta andaluziarraren eta urtebete geroago fusil berek hil zuten Esteban Urkiaga *Lauaxeta* euskal poetaren obran eta bizitzan oinarritu dute lana Jon Maia gidolariak eta Josu Kamara zuzendariak. *Lauaxeta* da obran Jon Maia, eta berak eman dizkigu azalpenak.

- AINARA ARGOITIA -



♦ **Lorca eta Lauaxeta. Bi identitate eta bi kultura ezberdin; bi poeta ikoniko fusil berek hilda. Nola bururatu zitzaizuen obra? Eta nola izan da uztartzea?**

Uztarketa eginda zegoen. Errepublikanoa zen Lorca eta gudari abertzalea Lauaxeta, baina nahiz eta bakoitzak bere idealak eta bere nortasuna izan, esku berdinek eta motibo beragatik hil zituzten biak urtebeteko aldearekin. Hari horri heldu diogu, baina egia esan behar badizut hasieran pixkat zortuzten bi autoreen materiala irakurtzen eta zein bilduma egin erabakitzen, baina aste batzuk pasata konturatu nintzen ezin

nintzela bihurtu aditua eta bilatu behar nuela enfoketarako partikular bat, bi figura horien lotura apur bat Euskal Herrira ekarrita. Eta heldu nion azkenaldiko nire diskurtsoari, Francoren garaian etorritako etorkinei beste begirada batekin begiratzeko ahaleginari, historia berrikusteko ahaleginari. Bagenekien Lauaxetak, gudari, abertzale eta Eusko Jauriaritzako komandante burua izanik hil zutenean, miresten zuela Lorca. Hala aitortu zion, gainera, Lorcarri berari gutun batean. Gutun hartan bizkaierara itzulitako bere poema batzuk ere bidali zizkion Lauaxetak, eta jabetu nintzen hor banuela helduleku bat, banuela adibide bat. Hau da, orain dela 80 urte euskal abertzale horrek ‘Lauaxetak’ miretsi zuen Espainiako errepublikano bat, biek egin zuten bat balore unibertsal batzuetan eta balore horien alde egiteagatik hil zituzten biak. Hona ekarrita, Euskal Herrian, urte askoan, elkar ezin ikusita eta askotan elkar joka bizi izan gara bi kultura, bi hizkuntza, eta nahi nuen hori beste modu batera aurkezteko ahalegina egin.

♦ **Beraz, oroimen ariketa bat bada, baina beharbada hori baino gehiago da elkarbizitza lantzeko ahalegin bat.**

Bai. Nahi nuke obra honen balorea

gehiago izatea etorkizunera begirakoa. Bi poeta hauek erakusten diguten ereduak erakusten digu gauzak beste era batera izan zitezkeela. Euskal Herrian erabat kontrako eredu bizi izan gara, eta etorkizunerako paradigma berri bezala, neri askoz interesgarriagoa egiten zait bi hauek erakusten digutena.

♦ **Beharbada gaizki azaldu naiz. Esan nahi nizuna da bi poeten biografia baino gehiago dela obra.**

Hori da. Ez da antologia bat. Obrak ekarpen bat egin nahi du bizi garen momentu historiko honetan eta Euskal Herrian, eta estereotipoak amaitu.

♦ **Zer nabarmenduko zenuke bi poeta hauen inguruan?**

Lorcaren poesia izugarria iruditu izan zait beti. Ikaragarria da nola eramaten dituen herri literaturaren sinbologia eta ezaugarriak literaturaren maila gorenera, eta izugarria da, era berean, ikustea zein diskurtso unibertsal egiteko gai den. Lauaxeta beste kultura batekoa da. Lorcarengandik jaso zuen literatura konprometituen zentzua eta baita hainbat irudi ere. Baina Lauaxetarengandik gehien inpresionatu nauena bere adorea da. Jakin hil behar zutela, ziega batean egon eta bere azkeneko poema izango

zena idaztera jarri zen, hil behar zutenaren kontzientziatik, 32 urterekin. Azken testigantza hori poema forman emateko gaitasun hori ikaragarria iruditzen zait. Nik, gainera, lauaxetarena egiten dut obran.

♦ **Arte adierazpide ezberdinak erabili dituzue uztarketa horretarako.**

Bai. Euskara eta erdara konbinatzen dira obran, eta ikusleak bi kultur espresio, bi poeta handiren kultura erreferentzialak topatuko ditu eta baita hizkuntza edo lengoia ezberdinak ere: zuzeneko musika, dantza, poesia eta gorputzaren lengoia. Goi mailako bi musikari izaten ditugu eszenatokian beti: Bata, Jesus Prieto *Pitti* da, Avilako gitarrista flamenkoa, estatuko hainbat taldetan ibilbide luzea duena. Bestea, euskalduna da, Gorka Hermosa. Soinu handia jotzen du, eta mundu mailako interprete eta konpositorea da. Mundu osoan jotzen dituzte Herminosaren piezak, eta bat, gainera, badu bereziki ezaguna -*Gernika*, obra honetan ere joko duena. Gero baditugu bi dantzari ere kultura andaluziarraren eta euskal kulturaren errepresentaziorako: Angela Carbajo de Lera dantzari flamenkoa eta Harkaitz Pascual euskal dantzaria. Mapping teknika bidez proiektzio artistikoak ere egiten ditugu, eta abestiak kantatu eta poesia errezitzen ditugu Ana Salazar kantaora cadiztarra eta nik. [Lorca da obran Ana Salazar]

♦ **Zer moduzko harrera izaten ari zarete? Zerk bete zaitu gehien eta zer beste duzu orain esku artean?**

Oso ona. Planteamendu berezia da gurea eta tesia ere ez da ohikoena, baina publikoaren erantzuna izugarria izan da, hunkigarria. Jende askok esan dit oso beharrezkoa dela halakoak egitea eta pena dela aurretik egin ez izana. Kultura da biderik egokiena herri honen historia mingarria modurik humanistikoenean tratatzeko. Horrexek betetzen nau gehien: askorentzat balio duen zerbait egiten ari garela ikusteak.

Iruditzen zait oraindik ibilbide luzea daukala egiteko obra honek eta datoren urtean jarraituko dugula honekin.



Taupada antzezki taldeak antolatuta, minutu bateko isilunea eta rantxo-afaria egin zituzten zapatuan.



Zirardamendin hildako gudariak omendu zituzten domekan.

Frankismoaren biktimak omenduko dituzte bihar Olasoko hilerrian, Duintasunaren Kolunbarioan

Frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldia antolatu du memoria historikoaren aldeko Elgoibar 1936 taldeak biharko, irailaren 23rako. Olasoko hilerrian, Duintasunaren Kolunbarioaren ondoan, egingo dute omenaldia, hain justu otsailean hobi komunetan zeuden 27 pertsonaren gorpuzkinak hobiratu zituzten lekuan (12:00). Ekitaldi xumea izango da, eta erregimen frankistak jazarritako guztiak oroitzeko baliatuko dute.

Joan zen zapatuan, berriz, minutu bateko isilunea gorde zuten Taupada antzerki taldeak deitutako ekitaldira batu ziren lagunek. Isilunearen ostean, rantxo-afaria egin zuten. Eta domekan, Zirardamendi-Aiastia fronte-lerroan hildako gudariak omendu zituzten Zirardamendin bertan egin zuten ekitaldian. Urtero egin ohi dute ekitaldi hori, iraileko azken aurreko domekan, eta aurten, Elgoibarko Udaleko hainbat zinegotzik, Elgoibar 1936 taldeko kideek, Arnaldo Otegi eta Joseba Felix Tobar Arbulu, Zirardamendin hil zituzten gudarietako baten senideak, parte hartu zuten omenaldi ekitaldian.

Ramon Garcia txirrindulariak seigarren egin du beteranoentzako Espainiako Txapelketan

Afizionatu mailako txirrindulari beterano onenak batu ziren aurreko asteburuan Kantabriako Colindres herrian, Espainiako Errepideko Master Mailako Txapelketan parte hartzeko. 30 urtetik gorakoen mailan seigarren postua eskuratu zuen Eibartrans-Gobike taldeko Ramon Javier Garcia elgoibartarrak. Zazpigarren kilometroan tropeletik ihes egin zuten bederatzi txirrindularik, tartean Garciak, eta 105 kilometroko ihesaldia osatu ostean euren arteko esprintean erabaki zen irabazlea. Esprintean Arturo Muñoz (Bobruc Oil) txirrindularia izan zen azkarrena eta seigarren postua lortu zuen Garciak.



Javier Varona arkularia Gipuzkoako txapelkun



Oñatiko San Miguel Trofeoan parte hartu zuten Zartako arkulari Javier Varonak eta Hugo Sierrak, joan den irailaren 17an. Gainera, Gipuzkoako txapelketa ere bazen Oñatikoa, basoko 3D modalitatean. Javier Varonak (argazkian eskuinean) 370 puntu eskuratu zituen, eta horiei esker bigarren postua eskuratu zuen San Miguel Trofeoan eta lehenengo postua Gipuzkoako Txapelketan. Hugo Sierrak, berriz, brontzeko domina eskuratu zuen Gipuzkoako txapelketan, lortutako 298 puntuekin. Hugo Sierra bera da, hain zuzen, modalitate honetako Euskadiko txapelketa, joan den maiatzean Legutegion eskuratu baitzuen titulua.

Madrid-Segovia 100 kilometroko ultra lasterketa bukatu dute bi elgoibartarrek



Gotzon Gurrutxaga eta Javier Hernando elgoibartarrek Madrid-Segovia mendi lasterketan parte hartu dute asteburuan. Estreinakoz korritu dute ultra distantziako proba bat eta esperientzia "polita bezain gogorra" izan dela azaldu dute. Hernandok azaldu duenez, hasiberrientzako egokia zelako eta aita Segoviakoa zuelako aukeratu zuten proba hau egitea. Madrilen hasi eta Santiagoko bidea jarraituz Segoviako akueduktua oinetan amaitzen zen 100 kilometroko proba. Bidean La Barranca eta Fuenfria (1.795 metro) gailurrak gainditu behar zituzten, eta aldapez gainera hotza izan zuten oztopo nagusia, gauean 2 gradutaraino jaitsi baitzen tenperatura. Jose Luis Basalo (9:11:23) eta Maria Soledad Aragunde (11:29:49) izan ziren azkarrenak. Bi elgoibartarrek elkarrekin egin zuten proba eta helmugara ere batera ailegatu ziren, 18 ordu eta 25 minutuko denbora eginda. 500 parte hartzaile baino gehiago irten ziren.

Euskadiko Hiru Txirlo Bolo Txapelketa hastear da



Euskadiko Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren 28. ekinaldia hasiko da zapatu honetan, hilaren 23an, Azkoitiako Floreaga auzoko bolatokian. Beste hiru saio gehiago izango ditu txapelketak: urriaren 7an Barinagan (Markina), urriaren 21ean Asola Berrin (Eibar) eta azken tiraldia Iruzubietan (Bolibar) izango da urriaren 28an. Gaur egungo txapelketa Jabier Osoro elgoibartarra da.

Bizikleta zaleen tropel handia batu zuen Elgoibar 2 Erroberatan ekimenak



Eguraldia lagun, 300 lagun inguruko tropela batu zuen Elgoibar 2 Erroberatan bizikleta irteeraren 13. ekinaldiak. Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak antolatzen du irteera hau distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzera animatzeko, eta bide gorri sarea zabaltzeko eta bizikletan ibiltzeko erraztasunak jartzeko eskatzeko. Antolaztaileak pozik agertu dira ekimenak aurten izan duen parte-hartzearekin. Nabarmendu dute "proposamen irekiak erantzun zabala eta anitza" eduki duela. "Jende eta familia asko etorri ziren, neska zein mutilak, Herri Eskolakoak zein Ikastolakoak", azaldu dute. Parte hartzaileen artean opariak ere banatu zituzten, bizikleta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko erabiltzen diren islatzaile bat, hain zuzen ere. Guztira, 270 inguru oparitu zituzten. Argazkiak: *barren.eus*

Sanlo "pozik" garagardo festak eman duenarekin



Sanlobeer garagardo feria antolatu du Sanlok, bosgarren urtez -Maalan egin duten bigarren- eta pozik daude aurtengoak eman duenarekin. Feriak iraun duen lau egunetan "eguraldi txarra" egin duen arren, jende asko hurbildu zen Maalara. "Domekan egin genuen paella janean, esaterako, 200 razio baino gehiago saldu genituen, eta dena bukatu zen", azaldu dute. Sanlok Elgoibarko Udalarik zein talde guztietako jokalarik eta gurasoei eskerrak eman dizkie: "Horiek gabe feria hau ezinezkoa izango litzateke, eta barkamenak eskatzen dizkiegu Maala inguruko bizilagunei, zaratarik jasan behar izan badute". Bingo solidarioan batutako diruaren berri ere eman dute Sanloko arduradunek. Izan ere, batu duten diruaren %60 (693,5 euro) Gipuzkoako Elikagaien Bankuari emango diote.

Emaitzak

ESKUBALOAIA

Eibar 25 - Alcorta F. Group 19 (Senior giz.)

FUTBOLA

Aretxabaleta 3 - Haundi 3

Elgoibar 1 - Anaitasuna 2 (1. erreg.)

Elgoibar 1 - Lazkao 1 (Oho. jub.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 23

10:00 Elgoibar - Soraluze (Kad. 1.maila)

12:00 Elgoibar - Lazkao (Oho. kad.)

16:30 Haundi - Ordizia

Domeka, 24

12:00 Elgoibar - Ikasberri B (Jub. 1.maila)

PILOTA (Elgoibar Ikastolan)

Barixakua, 22

19:00 Lagunak 2 - Soraluze (Gomazko paleta.

Nag. 3. maila)

19:30 Lagunak - Piña Kurdin (Gomazko paleta.

2. maila)

20:15 Lagunak 1 - Kuku 2 (Gomazko paleta. 3. maila)

20:45 Lagunak - Mundarro (Eskuz binaka)

Krossfit eta TRX ikastaroak, urrian

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak bi jarduera berri jarriko ditu martxan urrian. Alde batetik, mugimendu funtzionalan oinarritzen den entrenamendua landuko duten Krossfit ikastaro berria. Krossfitean, intentsitate handiko ariketa desberdinekin, eguneroko gure bizitzan egiten ditugun mugimenduekin (korrika, jauziak, pisuak altxatzea edo eramatea, e.a.), indarra, erresistentzia, abiadura eta koordinazioa lantzen dituzte. Yuri Egaña entrenatzaileak doako bi saio eskainiko ditu Kirol Patronatuak, Olai-zaga kiroldegian, irailaren 26an, asteartean, eta 28an, ostegunean, 20:00etan. Saio hauetako batean parte hartu nahi duenak aurrez Olai-zaga kiroldegian edo Mintxetan eman beharko du izena. Bestetik, zintzilikatutako sisteman oinarrituko da Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eskainiko duen TRX ikastaroa. Ikastaro berri hau dohain probatzea nahi duenak, irailaren 26an, asteartean, eta 28an, ostegunean, 19:00etan, Olai-zaga kiroldegian izango du aukera.

Atom Rhumbak kontzertua emango du gaur Elgoibarren, Kultur Etxeko Sotoan



Sinuösek antolatutako Sotoko Hotsak jaialdiaren barruan arituko da Atom Rhumba talde bizkaitar-nafarra, gaur, Kultur Etxeko Sotoan, 23:00etatik aurrera. Audience talde gernikarrak zabaldu zuen atzo jaialdia, Herriko Antzokian, eta Atom Rhumbak erraietatik ateratzen zaion musika egingo du gaur, ohi duen legez. Eskarmentu handiko musikariek osatzen dute taldea eta ibilbide luzea eta emankorra egin dute. Rocka ulertzeko modu propioa dute, eta zortzi disko kaleratu dituzte. Sarrerak 5 euroan jarri dituzte salgai.

Uxue Alberdik 'Jenis Joplin' nobela kaleratuko du urrian

Uxue Alberdik urriaren 6an aurkeztuko du nobela berria: *Jenis Joplin*. Nagore Vargas da nobelako protagonista eta kontalaria, baldintza makurrei aurre eginez zaildutako neska, gaztaroa intentsitate handiz bizi izan dutenen grinarekin borrokatuzera ohitutakoa. Susa argitaletxeak argitaratuko du liburua.



Zazpi musika talderen zuzenekoez gozatzeko aukera izango da bihar Gararock jaialdian



Gararock jaialdiaz gozatzeko aukera izango da bihar Mendaron, Garagartzako plazan. 17:00etan hasiko da jai-giroa eta 18:00etan emango diote hasiera jaialdiari, Jon Gurrutxaga eta Keu Agirretxeak. Eta ordutik goizaldeko ordubiak aldera arte, eten gabe arituko dira talde gonbidatuak. Kartel oparoa osatu dute antolatzaileek: Jon&Keu, Las Morenas, Screamin Targets, Kabbalah, Sonic Trash eta The Lookers gonbidatu dituzte eta Jo ta Ito herriko talde hasiberriari ere emango diote aukera zuzenean aritzeko. Food Truck furgoneta ere ekarriko dute aurten; jateko berezia, kontzertu berezi baterako. (Egitarau osoa agendan).

Beñat Konde eta Irati Altzibarrek egindako urtebeteko bidaiaren kontakizunarekin hasiko da 'Baguaz! bidaia-esperientziak' zikloa

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak aurkezten duen ekimen berria da *Baguaz! bidaia-esperientziak*, Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak babestutakoa. Elgoibarko Izarrako bazkide Maialen Astigarraga Alberdiren da ideia, eta bidaietako esperientziak ezagutzera ematea du helburu. Irailean hasi eta abendura arte, lau emanaldi izango dira, hilko bat, eta aurrenekoa martitzenean izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan. Beñat Konde eta Irati Altzibarrek urtebetez munduan barrena egindako bidaiaren berri emango dute. Iazko uztailan abiatu ziren Konde eta Altzibar, eta urtebete egin dute hara eta hona. Pertsonak adina bidaiatzeko modu daudela erakutsiko dute bi bidaiariek, eta Amerika, Ozeania eta Asiako herri ezberdinetako lagunen bizimodua, kultura eta errealitatearen berri emango dute.



Itziaroko Txindurri Iturri sagardotegira familia irteera antolatu dute irailaren 30erako

Hizkuntzaren familia transmisioan eragiteko asmoz, Itziaroko Txindurri Iturri sagardotegira familia-irteera antolatu du Atxixiamaikaren Kiribilduz egitasmoak, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan. Irteerarako izena ematen dutenek Txindurri Iturri sagardoa nola egiten duten ikusteko aukera izango dute, eta elkarrekin bazkalduko dute han. 10:30ean irtengo dira Elgoibartik (King Kongeko autobus geltokia) eta 18:00etarako itzuliko dira. Umeek 10 euro ordaindu beharko dituzte (Elgoibarko Izarrako eta Ludotekako bazkideek 9 euro), eta nagusiek 18 euro (bazkideek, 15). Izena emateko eta informazio gehiagorako. www.elgoibarkoizarra.eus.

Gaur zortzi hasiko dituzte San Migel jaiak Aiastia auzoan



Gaur zortzi, irailaren 29an, egun handia izango dute Elgoibarko Aiastia auzoan: San Migel eguna. Kanpai jotzearekin hasiko dituzte auzoko jaiak, eta meza nagusiaren ondoren, kantuan jarriko dituzte Ziarda eta Mañukorta bertsolariak. San Migel egunez ohi legez, pilota partida ere izango da, eta ondoren, elkarrekin bazkalduko dute auzotarrek. Ansorregi trikitalariek girotuko dute bazkalostea, eta gaue-rako, Haritz Dantzari Taldearen dantza emanaldia, gazteen afaria eta Fan&go taldearen erromeria antolatu dituzte. Jaiak, baina, asteburu osoan izango du segida. Egitarau osoa, agendan.

Matrikulaldia zabalik AEK euskaltegian

Zabaldute matrikulaldia AEK euskaltegian. Euskara ikasi, hobetu edota euskara tituloren bat nahi edo behar dutenek orain dute horretarako aukera. Guraso direnek, langabeek eta ikasle direnek nahiz dagozkien baldintzak betetzen dituzten gainerako guztiek beka eskuratzeko aukera izango dute, Udalak emandako laguntzari esker. Irailaren 26ra arteko epea dago AEKn izena emateko. Informazio gehiagorako nahiz izena emateko: 607 601 423 / elgoibar@aek.eus. Gabriel Kurutzealegi, 10 zenbakian dago AEKren bulegoa, Toletxeko tren geltokiaren beste aldean.

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erreferentzia onak ditut. ☎ 631 343 232

Umeak zaintzeko eta eskolako lanekin laguntzeko prest nago. Euskalduna. Titulua eta esperientzia ditut. ☎ 688 639 371

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna. ☎ 646 821 678

Adinekoak zainduko nituzke gauetz. ☎ 602 490 595

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka zein interna. ☎ 602 818 849

Tabernan edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia. ☎ 600 319 516

Altzariak konpondu, lurreen parketa jarri edo barniza ematen dut. Esperientzia handia. ☎ 635 005 536

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka edo interna moduan. Erreferentziak ditut. ☎ 689 571 882

Edozein lan mota egiteko prest nago. Esperientzia handia nagusiak zaintzen. ☎ 625 804 767

Garbiketarako egiteko eta adinekoak zainitzeko prest nago. ☎ 603 237 932 / 943 259 115

Nagusiak zaintzeko eta pasiatzera ateratzeko prest nago. ☎ 699 535 728

Adinekoak zainduko nituzte gauetan edo asteburuetan. ☎ 632 733 573 (Olga)

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 631 777 327 (Bertha)

Asteazken eta ostiraletan lan egingo nuke, 9:00etatik 15:00etara. ☎ 686 578 228

Ume edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 685 724 861 / 943 748 899

Gazte euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edota etxeko garbiketa lanak egiteko. Goizetik 11:30era. ☎ 617 248 087

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. ☎ 628 529 252

Zerbitzari, sukalde laguntzaile, garbitzaile edo adinekoak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 675 965 130

Edozein lan egiteko prest nago. Malgutasun osoa. ☎ 602 152 685

Ingeles eskolak ematen ditut etxez-etxe. Maila guztiak. Tituludun irakaslea naiz. ☎ 680 319 002

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest. Asteleheneretik ostiralera, 10:00-17:00. ☎ 632 564 679 / 640 742 618

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 638 338 816

Garbiketarako egiteko prest nago. Portalak, etxeak, elkarateak... Euskalduna naiz. ☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, Elgoibar, Sorluze edo Eibar aldean. Esperientzia daukat. ☎ 632 061 103

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 642 650 815 (Fran)

Nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Euskaraz dakit. ☎ 662 401 585

Eskaintzak

Zerbitzaria behar da Mahats tabernan lan egiteko. ☎ 646 936 092

Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 617 187 539

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska bat behar da lehenbailehen. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: cvdenda@hotmail.com

Jangelako zerbitzaria behar da Elgoibarko jatetxe batean lan egiteko. ☎ 625 467 634

ETXEBIZITZAK.....

3 gelatako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 602 490 595
Pisua salgai Ermuaranbide 10ean. Berriua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio negoziagarria. ☎ 943 743 197

Elgoibarko erdigunean pisua alokatzen dut: 3 logela, sukalde-jangela eta kumina. 3. pisua igogailurik gabe. 500 euro hileko eta 3 hilabeteko bermea. ☎ 688 650 060 (Laura)

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarran. ☎ 631 827 339

Bi pertsonentzako etxea edo ganbara hartuko nuke alokairuan. Presazkoa da. ☎ 638 338 816

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarran, erdigunean. ☎ 636 120 425

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarran. ☎ 626 329 979

Logela bat alokatu edo pisua konpartituko nuke Elgoibarren. ☎ 678 277 099 (Leire)

OSPAKIZUNAK.....

1972koen bazkaria urriaren 7an. 160 euro sartu behar dira irailaren 29rako ondorengo kontu korrontean: ES40-3035-0007-26-0071134189 (Laboral Kutxa).



administradores
Colegio Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Elkartea Administratzaileen Lanakiteko Erakundea

ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Erabilera publikoko baina jabetza pribatuko patio baten bueltan eratutako bost eraikinetako etxetxak komunitate batean, beheko solairuko lokal baten jabeak mahai bat eta aulki batzuk jarri nahi ditu uda saioan. Jakin nahiko nuke komunitatearen baimena behar duen horretarako.

Jabetza pribatukoa izanik, beharrezkoa da komunitatearen oniritzia, baita erabilera publikorako patioa izanda ere. Mahai eta aulki horiek kalean jartzeko ez luke komunitatearen baimenik behar. Mahai, aulki, estalki edo antzeko azpiegitura bat kalean edo jabari publikoan jartzeko eta ez espazio komun batean, ez da komunitatearen baimenik behar, baina bai horretarako baimen administratiboa.

Kasu honetan, komunitatearen eremuaren zati bat denez aldi batez erabili nahi dena ulertu behar dugu elementu komun errentamendua eskatu behar duela eta horretarako legeak gainerako jabeakideen gehiengo izatea eskatzen duela.

AHOLKUA: Jabetza pribatuko eremu baten arrendatzeaz ari garenez, komunitateak aukera du errenta bat edo ordainsaria eskatzeko trukean.

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Ainere**, zure 4. urte betetzean, familiako guztion partez. Ondo pasa eta patxo handi bat.



Zorionak, **Eneritz**, hilaren 17an 9 urte egin zenituelako. Muxu eta besarkada handi bat etxe-koen partez.



Zorionak, **Asier**, 8 urte handi egin dituzulako. Muxu handi bat etxe-ko guztion partez.



Zorionak, **Hai-zea**, irailaren 20an 10 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familiakoen partez.



Zorionak, **Luken**, atzo 6 urte bete zenituelako. Etxekoan, eta bereziki, arreba liberen eta lagunen partez.



Zorionak, **Uxue**, gaur 9 urte egin dituzulako. Muxuak gurasoen, eta bereziki, Danelen partez.




Zorionak zuen ezkontza egunean, **bikote!** Egun bikaina pasa dezazuela! Elgoibarko kuadrillakoen partez.



Zorionak, **Xabier Fonseca**, astelehenean 10 urte beteko dituzulako. Muxu asko gurasoen, eta bereziki, lruneren partez.



Zorionak, **Oihane** eta **Haizea**, irailaren 26an 11 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, aitiita eta amamaren partez.



Zorionak, **Ihart** eta **Maule**, zuen urte betetzeetan. Muxu asko etxe-koen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

MEKANOSA

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
 optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK

Ez da soinu kalitatea bakarrik; bizi-kalitatea ere bada

22 BARIXAKUA

17:30 Kiribil. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

20:00 Elkarretaratzea, Kataluniarekin bat. EHBilduk deituta, Kalegoen plazan.

22:00 Antzerkia. *ELE! Lorca-Lauaxeta*. Elgoibar 1936 taldeak antolatuta, Udalaren babesarekin. Herriko Antzokian.

23:00 'Sotoko Hotsak'. Atom Rhumba taldearen kontzertua. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

23 ZAPATUA

12:00 Frankismoaren biktimak oroitzeko ekitaldia Duintasunaren Kolunbarioan. Elgoibar 1936 taldeak antolatuta.

17:00 'Gararock' musika jaialdia Mendaroko Garagartza auzoan. Egitaraua:

- 17:00 Haurrentzako tailerra

- 18:00 Jon & Keu, musika eskolako terrazan.

- 19:00 Las Morenas, Garagartzako plazan.

- 20:00 Screaming Targets, terrazan.

- 21:30 Jo Ta Ito, plazan.

- 22:15 Kabbalah, plazan.

- 23:30 Sonic Trash, plazan.

- 1:00 The Lockers, plazan.

18:00 GeoElgoibar, Geologia Elgoibarko kaleetan. Inma Mugertza geologoarekin. Izena emateko: infohydrolur@gmail.com edo 943 901 654.

25 ASTELEHENA

19:00 'Epeletan', euskal literatura tailerra. Miren Gorrotategiren *33 ezkil* liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

26 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra, Consuelo Carrererekin. *Crimen y Castigo* liburua landuko dute. Haizek antolatuta, Udal liburutegian.

19:00 *Baguaz bidai-esperientziak*. Hizlariak: Beñat Konde eta Irati Altzibar. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

SAN MIGEL JAIK, AIASTIAN

Irailak 29, 30 eta urriak 1

29 BARIXAKUA, San Migel Eguna

11:30 Meza

Jarraian, Ziarda eta Mañu bertsolariak.

Ondoren, esku-pilota partidak.

14:30 Bazkaria.

Ondoren, Ansorregi trikitilariak.

21:00 Borja Uzuriagaren oroimenez dantzaldia, Haritz EDTren eskutik.

22:30 Gazte afaria.

Ondoren, erromeria Fan&go taldearekin

30 ZAPATUA

13:00 Umeen jokoak.

Jarraian, umeen bazkaria.

Ondoren, umeentzako parkea.

18:00 Bolo txapelketa.

21:00 Bertso afaria, Jone Uria eta Nerea Ibarzabal bertsolariarekin.

Ondoren, erromeria, Mirari, Aitziber eta Lutxurdixorekin.

1 DOMEKA

11:00 Meza.

Jarraian, Baltzola Anaiak trikitilariak.

12:00 San Migeleko XI. Artzain Txakur Txapelketa. Euskal Herriko arraza libreko finala.

14:30 Bazkaria.

17:00 Idi demak.

Jarraian, Baltzola Anaiak trikitilariak.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Clash'

28 eguna, 21:30 (Ongarri zinekluba)

Zuz.: Mohamed Diab. **Egipto, 2016. 95 min. Drama, politika. Aktoreak:** Nelly Karim, Hany Adel, El Sebaïi Mohamed, Ahmed Abdelhamid.

Film egipziarra da. Cannesen estreinatu zuten eta Seminci Valladolideko Nazioarteko Zinemaldian zuzendari onenaren saria jaso zuen. Film honek poliziaren furgoi batera garamatza eta 2011ko Arabiar Udaberriaren ondorengo kaos egoeran murgilduko gaitu.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00

22 Barixakua GARITAONANDIA
 23 Zapatua ETXEBERRIA
 24 Domeka ETXEBERRIA
 25 Astelehena FERNANDEZ
 26 Martitena YUDEGO
 27 Eguaztena ORUESAGASTI
 28 Eguena BARRENETXEA
 29 Barixakua IBAÑEZ

GUARDIAK 20:00 - 22:00

Guardia Elgoibartik kanpora denean,
 asteburuetan izan ezik:
 BARRENETXEA (Elgoibar)
 Errosario, 26 - 943 741 277


22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
 San Agustin, 3 - 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro)
 Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
 (Soraluze) Tel.: 943 751 384



Margarita Gabilondo Urquizu

2017ko irailaren 15ean hil zen, 88 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Enrike Martinez Goikoetxea

2017ko irailaren 15ean hil zen, 74 urte zituela.

*Ezinezkoa da utzi diguzun hutsunea betetzea,
 ezta eman diguzun laguntasuna
 eta zoriontasuna gainditzea ere.
 Une latz hauetan gure ondoan egon zareten denoi,
 eskerrik asko,
 eta eskerrik beroenak zuri, Enrike,
 izan zaren bezalakoa izan zarelako.*

Etxekoak





Julen Ansola

Irati Agirreazaldeg



Argazkiari begira, norbait urrutira bidean pausoak ematen ari da. Nora joango ote da? Zeruzertzera? Hori berak pentsatu beharko, bidea norabidearen erdi soil bat delako, eta guk ikusi ez arren, bidean aurrera egin ahala edozein

bidegurutzarekin topo egin dezakeelako.

Geldirik geratzea da, ordea, biderik luzeena, eta bideak helmugak baino garrantzia handiagoa duen arren, helburuak argi izanez gero, bidea eraikitzea da denok egin behar genukeena. Izan ere, aurrera begiratzen duenak pauso bat eman eta bidean aurrera egiten du. Begirada albora zuzentzen duenak, ordea, ez

du jakiten pausoa nora zuzendu. Pixka bat mugituz gero, bidetik irteteko beldurra izaten du.

Baina eroriz ikasten da oinez eta geldirik gelditzea ez da irtenbidea, egiten dugun horrek, bideak, egiten baikaitu gu eta ematen ditugun pausoak etorkizunerako bidean gogoan izango ditugu. Noiz ematen dugu azken urratsa, gorputzetik ateratzen denean atsa eta bidean aurrera egiteak horrekin ez pentsatzean datza.

Nahiz eta bidaiak noizbait egunerokotasunaren laburtu ez dezagun ihesaldi bihurtu eta, bidean aurrera egin behar denean hobe segi nahi ez dutenak agurtu. Bide ertzean gelditzen direnei agur, gainontzekook egunerokotasunaren bide luzean eman pausoa labur.

“Bideak helmugak baino garrantzia handiagoa du”

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
faller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Olaso industrigunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industrigunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK

Albitxuri industrigunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarekin ere
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behea
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea


Kilimon hirtibidea, 1 - Mendaro
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 989



ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223

lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

Gremioen gida

Baguaz! bidaia-esperientziak

Bizitza bidaia

Beñat Konde Untzilla eta Irati Altzibar Eizagirre



“Pertsonak adina bidaiatzeko modu dago.

Gure kasuan, urtebetean munduari buelta eman ondoren, Amerika, Ozeania eta Asiako herri desberdinetako pertsonen bizimodua, kulturak eta errealitateak ezagutu ditugu. Gure bidaia ezagutu nahi?”

Irailak 26, asteartea
Kultur Etxeko hitzaldi gela
19:00

Antolatzailea:



Babeslea:



KULTURA

elgoibar
bizitza